

IV. ERANSKINA: Argi energiaren kontsumoa murrizteko neurrien proposamena

- Egun-argia aprobetxatu behar da, baina, halere, liluratzeak eta gehiegizko beroa saihestu behar dira barneko errezelak edo xaflak jarrita. Gainera, argiztatu beharreko tokiak duen norabidearen, okupazio mailaren, eta leihoetatik duen hurbiltasunaren arabera horizontala edo bertikala izan daitekeen argi kolpeen banaketa zehazteko erabil daiteke egun-argiaren eragina.
- Islatzearen aurkako margoa eman behar zaio arbelari, egun-argia islatzea ekiditeko.
- Kolore argiek tokiak argitsuagoak izan daitezten egiten dute; honenbestez, paretak margotzeko kolore argiak erabiltzea gomendatzen da.
- Luminaria motetara egokitu behar da lekua, toki bakoitzak behar duen argitasunaren arabera. Energia aurrezteko proposamen bat honako hau da:

Ohiko bonbilla, aldatu beharrekoa	Kontsumo apaleko lanpara, argitasun berbera ematen duena	Lanpara baten bizitza osoan aurrezten ahal diren kilowattak orduko
40 w	9 w	248
60 w	11 w	392
75 w	15 w	480
100 w	20 w	640
150 w	32 w	944

Iturria: Guía práctica de la energía (IDAE)

- Oro har, ohiko goritasun-bonbillak aldatu egin behar dira, eta kontsumo apaleko lanpara fluoreszente trinkoak jarri. Kontsumoa %80 murrizten dute eta 12 aldiz gehiago irauten dute.
 - Komunetan eta korridoreetan tenporizagailua duten etengailuak jar daitezke, edo, gainerakoan, argi detektagailu infragorri pasiboak. Izan ere, etengabe erabiltzen ez diren zonen kontrol automatikorako bidea ematen dute, besteak beste, komunetarako, argia piztuta gelditzea saiheste baitute.
 - Etengailuetan itsasgarriak jarri ahal dira, etengailuak argi kolpeekin identifikatzeko eta, hartara, bakarrik nahi diren lanparak pizteko.
 - Zenbait tokitan (liburutegia, irakasleen gela...) argi mehe nagusi bat jarri, eta lan egiteko diren guneeetan argi puntu kontzentratuak (adibidez, arkitekto lanparak) jartzea komeni da.
 - Lanparen hornidura osagarriak (balastoak edo erreaktantziak) elektronikoak izatea komeni da, ohikoak beharrean, energia aurrezteko aukera ematen baitute eta lanparen batez besteko bizitza luzatzen baitute.
-